

B. ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

1.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK

Ibarrako merkataritza edo ostalaritza arloko establezimenduetako titularrak izatea

2.- DIRULAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

- a) Establezimendua irekitzeko Udalaren baimena izatea.
- b) Errotulua instalatzeko Udalaren baimena izatea.
- c) Errotulua euskara hutsean edo euskarari lehentasuna emanaz jartzea.
- d) Diru-laguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
- e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen aitopen erantzulea aurkeztea.

3.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Ibarrako Udalak euskara hutsez jarritako errotuluagatik kostearen %50eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 300 eurotik gorakoa izango.

Euskarari lehentasuna emanaz jarritako errotuluagatik kostearen %15eko diru-laguntza emango dio eskatzaileari. Nolanahi ere, diru-laguntza ez da 60 eurotik gorakoa izango.

Horretarako, beharrezkoa izango da errotulua euskaraz ondo idatzita egotea, eta hori egiaztatzea Euskara Zerbitzuaren zeregina izango da.

Errotuluetan izena edo izen-abizenak bakarrik agertzen baldin badira, hau da, establezimenduaren jarduerari inolako aipamenik egiten ez baldin bazaio, Udalak ez du diru-laguntzarik emango.

4.- AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

- a) Eskaera orria, behar bezala beteta.
- b) Titularraren Nortasun Agiri Nazionalaren edo Identifikazio Fiskalerako Kodearen kopia.
- c) Establezimendua irekitzeko eta errotulua jartzeko baimenak, Ibarrako Udalak emanak.
- d) Faktura originala eta ordainketa agiriak.
- e) Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko aitopena.
- f) Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.